


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Pintura, sanba eta mekanika kuantikoa

AMERICAN INSTITUTE OF PHYSICS



Ezkerreko argazkian, Richard Feynman fisikaria. Eskuinean, Feynmanen pasioetako hiru, ekuazioak, marrazkigintza eta emakume biluziak, apunte orri bakarrean uztartuta.

PASADENA, AEB, 1960. “Ofey” izen-goitiko margolariak masaje-etxe baterako enkargua egin eta margolana erosleari eraman zion. Baina masaje-etxeke jabea atxilotu zutela jakinarazi zioten. Koadroa atzera furgonetan sartu, eta, emazteari baimena eskatu ondoren, putetxez putetxe ibili zen artista bere lana saldu nahirik. “Ofey” izenordearen atzean Richard Feynman (1918-1988) zegoen, XX. mendeko fisikari nagusietakoa. Handik bost urtera, 1965ean, Fisikako Nobel Saria eman zioten.

40ko hamarkadan, mekanika kuantikoari buruzko tesia amaitu eta gutxira, bomba atomikoa garatzeko Manhattan Proiektu ezagunean parte hartu zuen Feynman gazteak. Proiektua amaituta, Cornell Unibertsitatean hasi zen irakasle eta, ondoren, Kaliforniako Teknologia Institutuan (Caltech). Nobel Saria elektrodinamika kuantikoaren teoriari esker lortu zuen, baina beste hainbat alor ere jorratu zituen: besteak beste, helio likidoaren super-jarioratasuna eta Feynmanen diagramak, espazio-denboran partikulen interakzioa ulertzeko eta kalkulatzeko kontabilitate-erregistro modukoak. Gainera, haren eskola eta hitzaldi bereziek fisika modu ulergarrian jendarteratzen lagundu zuten. Minbiziak hil zue-

nean, ikasleek oihal erraldoia zintzilikatu zuten Caltecheko liburutegiko teilatutik; *We Love You, Dick* (Maite zaitugu, Dick) zioen pankartak.

Fisikari karrera oparo hark ez zion beste gauza askorako tartea ostu. Margolari gisa trebatu eta hainbat erakusketa egin zituen, ospe zalan-tzagarriko negozioetarako enkarguren bat egiteaz gain. Musika ere landu zuen. Brasilen, esaterako, *frigideira* jotzen ikasi zuen. Eta ederki egingo zuen, Rioko sanba eskola batek inauterietan jotzeko aukeratu baitzuen. Aurrerago bongoak jotzen ikasi zuen, eta musikari talde bat bilduta, Parisko musikal lehiaketa batean ere parte hartu zuen.

Hirutan ezkondu zen, baina emakumeenganako pasioak ezkontzaren eremua gairatu zuen. Sexualitateari buruzko oso iritzi liberala zuen, eta topless-tabernen zale amorratua zen. Emakume biluziak ikusteak lasaitu eta inspiratzen zuela zioen, eta maiz paperezko ahozapietan ekuazioak idazten hasten zen. Horrez gain, hieroglifiko maiak irakurtzen ikasi zuen, kutxa gotorrek irekitzen zekien...

Hil zenean, esaldi hau utzi zuen arbelean idatzita: *What I cannot create, I do not understand* (sortu ezin dudana, ez dut ulertzen).



Arrastoak

Egiptoko beste faraoi bat azaleratu da

SEN NEGT N RA izena agertu da berriki Luxorren egindako indusketetan topatu duten harrizko ate batean (beheko argazkian). Egiptoko Antzinaroko Goi Kontseiluak jakinarazi duenez, izena orain arte ezaguna ez zen XVII. dinastiako (K.a 1680-1589) faraoi bati dagokio. Garaiari erreparatuta, Sen Negt N Ra Egipto hiksoen okupaziotik askatu zuen erregeetako bat izan zitekeen. Baina indusketa lanetan jarraitu behar dute faraoiari buruzko informazio gehiago lortzeko eta, oro har, faraoi guztien behin betiko zerrenda osatzeko.



EGIPTOKO AGK

Faraoi ezezagunaren izena erliebe obalatuaren barruan dago idatzita.